

BALOREZKO PROPOSAMENA

Proiektuaren proposatutako balioa, 2 zerbitzu desberdinak eskaintzen ditugula da; inmobiliaria eta erreforma taldea.

Baserria landa habitat mota bat da, eraikuntza tradizionalakoa eta bostehun urtetik gorako historiakoa Euskal Herrian. Zaharrenetarikoa adibidez, Landetxo Goikoa izenekoa da, 1510 urtekoa. Horrek esaten diguna baserria pisu handia duela Euskal Herriko historian, baina ehun urte bete ditzakeen eraikinak direnez, batzuetan segurtasunagatik ezin gara bertan bizi, eta gainera, gero eta jende gehiago bizi da hiriguneetan, baserriak atzean utzita eta gure historiako zati bat galtzen. Horretarako Jambunina SL baserrietan espezializaten den inmobiliaria bat da, gainera erreforma taldeak ere ditugulako, segurtasun gutxiko baserriak edo baserri zaharrak baserri bizigarrietan bihurtzen.

Nobedadea edo Berritasuna: Espainia mailan enpresa mota hauek ez dira asko ikusten, baina berriz, Estatu Batuetan enpresa hauek asko ikusten dira.

Estatu Batuetan enpresa hauek etxeak erreformatu eta luxuzko etxe bihurtzeko erabiltzen dira, prezio handi batean saltzeko. Espainian/Euskal Herrian, aldiz, etxea merkeago saldu nahi dugu, etxea luxuzko mailan erreformatu gabe.

- Enpresa mota hau bakarrenetarikoa da Espainia/Euskal Herrian
- Guk eskaintzen duguna:
 - Pertsona asko daude Euskal Herrian baserria ez dutenak, eta etxe horietan bizi nahi dutenak, guk hori konpontzen dugu, baserri bat lortzeko haiek bizi diren ondoan.
 - Etxebizitzen jabeen eta erosle posibleen artean egiten dugu bitartekari lana, jabeek ez dezaten haiekin borrokatu behar izan.

Prestazioak: Esan dezakegu gure enpresak, higiezinak erreformatzen/saltzen dituenak, lana perfektionatu duela. Adibidez, erreformak gero eta azkarrago eginez.

- Bezeroen baserria erreformatzean haien bizi kalitatea hobetu ahal izatea, edo baserria berria erostekoan.

Pertsonalizazioa: Eskaintzen ditugun zerbitzuak direla eta (baserrien erreforma eta salmenta), pertsonalizazioak pisu handia du lan egiteko orduan. Oso garrantzitsua da guretzat, etxebizitza bakoitzak bezeroaren gustukoa izan behar baitu, bertan biziko delako.

- Bezeroaren gustura baserria erreformatzerakoan edo baserri berria bezeroaren gustukoa izaterakoan

Lana erraztea (bezeroari): Gure ustez, etxebizitza bizitzako gauzarik garrantzitsuenetako bat da; horregatik, aldi baterako etxebizitza bat bilatzen dugu, behar izanez gero bertan bizi daitezkeen erreformak irauten duen bitartean. Baserria erosi nahi gero, bezeroaren ordutegira egokitzen gara, etxebizitza desberdinak erakutsi ahal izateko.

Diseñua: Erreforma bezeroak gainbegiratu egingo du bere gustora egoteko, egitura-gaietarako gure arkitektoarekin eta etxebizitzaren estetikarako diseinatzailearekin lan eginez. Baserria erosi nahi bada, etxebizitza berriak ikusiko dira gustuko bat topatu arte

Marka/estatusa: Era askotako aurrekontuak dituzten era guztietako bezeroei ematen diegu arreta, 300.000 €-tik gorako aurrekontuekin lan egiten dugu higiezinak erosteko, baina ez dugu arazorik aurrekontu txikiagoekin lan egitearekin. Erreformari dagokionez, 5.000 €eskaten dira gutxienez, baina oso prezio lehiakorra eta eskuragarria da. Guretzat garrantzitsuagoa da bezero mota guztien gogobetetzea eksklusibotasun-marka gisa ezagutaraztea baino.

Prezioa: Gauden negozio motagatik (higiezinen salmenta eta eraberritzea), gure ondasun bakoitzak prezio ezberdina du, honako arrazoi hauengatik: m2 kopurua, lorategia du edo ez, kokatuta dagoen herria, erreformaren pertzonalizazio maila...

- Erreformengaitik: Erreformatan bi prezio desberdin ditugu. Gure bezeroek aukeratu ahalko izango dute zein prezio komeni zaien. Prezioak honako hauek izango dira; 40.000€ baino gehiagokoak eta 40.000€ baino gutxiagokoak.
- Baserri salmentengatik: Salmentetan ere erreformatan bezala bi prezio desberdin izango ditugu. Gure bezeroek aukeratuko dute zein prezio komeni zaien edo ordaindu ahal duten. Prezioak honako hauek izango dira; 300.000€ baino gutxiagoko baserriak eta 300.000€ baino gehiagoko baserriak.
- Erreforma+Salmentengaitik: Zerbitzu honetan erreforma eta salmenta kontuan izango dira, zerbitzu hau bi zatitan banatuko dugu, hau da, erreforma eta salmentan. Hemen egingo dugun lana izango da etxea erreformatu eta erreformatzen gauden bitartean beste baserri bat topatuko dute gure taldekoek. Erreforma amaitzerakoan bezeroek aukeratu egin beharko dute haien baserriarekin geratu edo beste baserri bat erosi. Prezioak honako hauek izango dira:
 - <40000€ eta <300000€
 - <40000€ eta >300000€
 - >40000€ eta <300000€
 - >40000€ eta >300000€

Eskuragarritasuna: Bezero guztiak berdintasunez artatzen saiatzen gara, noizbehinkako eskaerak izan ezik, horietan gainerako bikoitza gutxienez izatea aurreikusten baitugu.

Erabileraztasuna: Gure enpresa gailurrean mantendu nahi dugunez aholkularitza pertsonalizatu dugu, hau da, gurekin kontaktu jarri ahal dira telefono bidez 24 orduetan deitu ahal dute, edo bestela webgune bat sortu dugu lehenengo informazioa lortu ahal izateko eta dudarik badaukate adimentsu artifizial batekin hitz egin ahal dute.

- Tlf. 123456789
- <https://jambunina.com>

